

MIKE STERN
VIRNA NOVA
MATTEO MANCUSO
PATRICK RONDAT
JUNE AGIRRE
CHACON, GÀMEZ, JUANCO
MANY YEARS AFTER
HYLEEN
GARI
JM ECAY
JAC
#11
Festival
GUITARALDE
Festibala
UZTAILAK
7·8·9 JUILLET
2022
HENDAYE / HENDAIA
RÉSERVATIONS / ERRESERBAK : WWW.HENDAYE-CULTURE.FR
VILLE D'HENDAYE
HENDAIAKO HERRIA
hendaye
PYRENEES ATLANTIQUES
Pays Basque
Euskal Herria
YAMAHA
SAVAREZ
RELAIS THALASSO
Crédit Mutuel
tvpi
bleu

# PROGRAMME ON EGITARAUA

## 7 juillet Uztailaren 7an

**19:00** > Place de la République Errepublika plazan - gratuit urririk
**OUVERTURE DU FESTIVAL DANS LE CADRE DU «JEUDI'NE EN VILLE»**
**MANY YEARS AFTER**

**21:00** > Halles de Gaztelu aretoa - **SOIRÉE DÉCOUVERTE AURKIKUNTZA GAUALDIA**
**MATTEO MANCUSO / CHACON, GÀMEZ, JUANCO**

## 8 juillet Uztailaren 8an

**19:00** > Chapelle Château Abbadia - **CONCERT CLASSIQUE KONTZERTU KLASIKOA**
**JUNE AGIRRE**

**21:00** > Fronton Gaztelu Zahar pilota plaza - **SOIRÉE ALL STARS GAUALDIA**
**HYLEEN**
**MIKE STERN** BAND **avec Dennis Chambers, Leni Stern, Chris Minh Doky & Bob Franceschini-rekin**

## 9 juillet Uztailaren 9an

**19:00** > Terrasse Relais Thalasso terraza - gratuit urririk
**JAC / JM ECAY** TRIO

**21:00** > Fronton Gaztelu Zahar pilota plaza - **SOIRÉE POP ROCK GAUALDIA**
**GARI** (SOLO UNPLUGGED)
**VIRNA NOVA** QUARTET
**PATRICK RONDAT** QUARTET

Produit par KARAKOIL PRODUCTION N° II-1034788 & III-1034789

NOUVEAU **SALON DES LUTHIERS** BERRIA
Les 8 et 9 juillet aux Halles de Gaztelu Uztailaren 8an eta 9an Gaztelu aretoan

# l'édito



## de Kotte Ecenarro,

Maire d'Hendaye.
Vice-Président de la Communauté d'Agglomération Pays Basque.
Hendaiako Auzapeza.
Euskal Hirigune Elkargoaren lehendakariordea.

## & de Jean-Marie Ecay,

Directeur artistique du festival Guitaralde.
Guitaralde festibalaren zuzendari artistikoaren.



Après une décennie conclue par un festival mémorable l'an dernier, nous avons à cœur de poursuivre l'aventure du Guitaralde en 2022 et de renouer avec les conditions d'avant la pandémie.
Le Service culturel de la Ville, la Régie des fêtes, Hendaye Tourisme & Commerce ont validé le programme de la future édition. Elle fait la part belle tant aux jeunes talents qu'aux stars masculines et féminines confirmées au niveau local, national et international.
Si le fronton et les incontournables Halles de Gaztelu accueilleront de prestigieux plateaux, la chapelle du château d'Abbadia résonnera également au son d'un concert classique.
L'association Guitaralde, partenaire de la Ville, s'est chargée d'organiser, avec les cafés, restaurants, commerces et autres partenaires locaux, le traditionnel festival Off dont les concerts gratuits, intercalés avec ceux de l'affiche principale, donnent la chance à de nombreux artistes locaux de qualité de se produire dans un festival dont la renommée nationale n'est plus à faire. Il contribue également à la convivialité de l'événement qui nous a d'ailleurs beaucoup manqué durant les deux années de crise sanitaire.
Autre décennie, autre nouveauté ! Le festival intègre cette année un « salon des luthiers » pour découvrir les métiers d'art autour de très belles guitares. Un festival d'exception se profile !

Nous vous souhaitons une belle édition 2022.

Iaz festibal gogoangarri batez bururatu hamarkada baten ondoren, Guitaralde abenturarekin jarraitu nahi dugu 2022an eta pandemia aitzineko baldintzetara itzuli.
Herriaren Kultura Zerbitzuak, Besta Batzordeak, Hendaia Turismo & Merkataritzak hurrengo edizioaren egitaraua balidatu dute. Hala talentu berriei nola toki mailan, nazio mailan edota nazioarte mailan ospea lortu duten gizon eta emazte izarrei egiten die leku.
Gaztelu areto bazterrezinak eta frontoiak plato ospetsuak hartuko dituzte eta Abadia kapera ere kontzertu klasiko baten soinuez jantziko da.
Guitaralde elkartea Herriaren lankide da eta bera arduratu da, kafe etxeekin, jatetxeekin, saltegiekin eta tokiko beste lankide zenbaitekin batera, ohiko Off festibala antolatzeaz; alde horretako kontzertuak urririk dira eta afixa nagusikoekin aldizkatzen dira; kalitatezko tokiko artista anitzi ematen diete nazio mailako ospea lortua duen festibal batean aritzeko aukera. Ekitaldiaren giro atsegina ekartzen parte hartzen dute ere Off kontzertu horiek; osasun krisiko azken bi urteotan oso eskas izan zaigu giro hori.
Beste hamarkada, beste berrikuntza! Festibalak, aurten, «arrabitarien azoka» hartuko du ere, gitarra eder-ederren inguruko arte lanbideak ezagutzeko.
Festibal bikaina itxura hartzen ari da!

2022 edizio ederra opa dizuegu.




Crédit Mutuel
Hendaye
6, boulevard De Gaulle - 64700 Hendaye
Tél. : 05 59 03 68 40 - Email : 02281@creditmutuel.fr

Caisse Fédérale de Crédit Mutuel – RSC Toulouse D 312 682 099.



# RELAIS THALASSO

- HENDAYE -

*L'âme basque...*






**SÉJOURS THALASSOTHÉRAPIE**
Estancias de talasoterapia

**CURES & MINI-CURES**
Curas y mini-curas

**SPA BEAUTÉ**
Spa belleza

**BAR & RESTAURANTS**
Bar y restaurantes

**SPA MARIN**
Spa marina

**FITNESS**
Fitness

05 59 51 35 35
RELAIS THALASSO-HENDAYE.COM



# NOUVEAU BERRIA
# SALON DES LUTHIERS

Grande nouveauté cette année avec l'organisation d'un salon des luthiers durant le festival. Venez découvrir et rencontrer ces artisans locaux les 8 et 9 juillet aux Halles de Gaztelu (entrée gratuite).

Aurten berrikuntza handia dugu, hain zuzen ere, festibala bitartean arrabitegileen azoka antolatzea. Zatoz tokiko eskulangile horien ezagutzera eta haiekin mintzatzera, uztailaren 8 eta 9an, Gaztelu aretora (sartzea urririk).

Vendredi ostirala 14:00-18:30 • Samedi larunbata 10:00-12:30 / 14:00-18:30

**Xabina Larralde** - **Guitares Acoustiques Artisanales**
(La Bastide Clairence / Bastida)
C'est dans son atelier à La Bastide Clairence que Xabina Larralde conçoit des guitares acoustiques. Son travail entièrement artisanal ne laisse rien au hasard.

**SC Guitarras** (San Sebastián / Donostia)
Sergio Callejo fabrique des instruments uniques, personnalisés et construits de manière artisanale avec les meilleurs matériaux.
Ce n'est qu'en prenant soin de chacun des détails qu'il est possible de donner la qualité qui le rend fier du travail offert à ses clients.

**Bival Guitar** (Urrugne)
Avec Stéphane Bivalski, la part belle est faite à la lutherie avec la création, la réparation, la customisation, les réglages et simplement l'entretien de vos instruments. Il y a aussi la partie électronique où il répare vos amplis, vos pédales, vos synthés et bobine vos micros.

**Suge Guitare** (Bayonne)
Ma philosophie de la lutherie : une passion à partager avec les musiciens.
Pour avoir joué sur de nombreux instruments de grandes marques que l'on connaît bien, il m'arrivait souvent de rester sur ma faim.
C'est ce qui m'a incité à créer mes propres instruments...

**KMG Guitars** (Chartres 28)
Killer Mega Guitars propose un autre regard sur la guitare, une construction traditionnelle et évolutive de l'instrument qui trouve son aboutissement avec le Ace Tone System.

**Echos d'artistes** (Fronton 31)
À Fronton près de Toulouse (31), Alexandre Azzola et son équipe fabriquent des guitares folks, archtops, Jazz manouche et électriques.

**Retro Tone** (Itxassou)
Retro Tone est une entreprise artisanale fondée en 2014 pour fabriquer des pédales d'effets analogiques. Tout est fait à la main de la boîte au circuit... Le plaisir du son d'une pédale vintage pouvant être incorporée aisément dans un pédalboard moderne.

**Xabina Larralde** - **Guitares Acoustiques Artisanales**
(Bastida)
Bastidako bere lantegian egiten ditu Xabina Larraldek gitarra akustikoak. Guztiz eskuz egin lan horrek ez du ezer menturaren menturara uzten.

**SC Guitarras** (Donostia)
Sergio Callejo musikatresna bakanen fabrikatzailea da, tresna pertsonalizatu eta eskuz eginak material onenak baliatuz. Xehetasun guztiei kasu eginez bakarrik lor daiteke berak bezeroei eskaintzen dien lanaz harro izateraino lortzen duen kalitatea.

**Bival Guitar** (Urruna)
Stéphane Bivalski-rentzat arrabitagintzak du lehentasuna; zure musikatresnak sortzen ditu, konpontzen ditu, egokitzen ditu, doiketak egiten dizkie edota, besterik gabe, mantenimendua egiten die. Alde elektronikoaz ere arduratzen da eta zure anplifikadoreak, zure pedalak, zure sintetizadoreak konpontzen ditu eta zure mikroak harilkatzen.

**Suge Guitare** (Baiona)
Arrabitagintzaz dudan filosofia: musikariekin partekatzeko zaletasuna. Ongi ezagun diren marka nagusietako tresna anitz jo dudanez, mahiz gertatzen zitzaidan asegabe geratzea. Horrek eraman nau ene tresna eneak sortzera...

**KMG Guitars** (Chartres 28)
Killer Mega Guitars lantegiak gitarraren bestelako behakoa proposatzen du, musikatresnaren egiteko molde tradizionala eta kanbiakorra, bururapen ederra duena Ace Tone System delakoarekin.

**Echos d'artistes** (Fronton 31)
Fronton herrian, Tolosa ondoan (31), Alexandre Azzola soka zimikatuen tresnetan espezialista da (folk, archtop...).

**Retro Tone** (Itsasu)
Retro Tone eskulangintzako enpresa bat da; 2014an sortu zuten efektu analogikoko pedalak egiteko. Guztia eskuz egina da, kutxatik hasi eta zirkuitorainoko guztia... Vintage pedal baten soinuaren atsegina erraz lot dakioke pedalboard moderno bati.

Uztailaren **7**an juillet 19:00
Place de la République Errepublika plazan
gratuit urririk

Ouverture du Festival dans le cadre du « jeudi'ne en ville »



# MANY YEARS AFTER

*« Si vous trouvez nos chansons chouettes, c'est parce que c'est pas nous qui les avons écrites ! »*
C'est ainsi que se présente le trio de Many Years After.
Un moment placé sous le signe de l'humour et de la bonne humeur. Mais un moment de belle musique avant tout, avec ce groupe qui réunit trois musiciens aguerris du Pays basque, qui écument les scènes régionales dans de nombreuses formations.
Cette soirée, qui s'inscrit dans le cadre de la programmation des « Jeudi'ne en ville » de Hendaye, nous ramène dans les années 60-70, pour un « revival » des grands groupes qui ont forgé l'histoire de la pop et du rock, parmi lesquels Eagles, Neil Young, David Bowie, Creedence Clearwater ou les Kinks... Des titres qui sont autant de tubes inoubliables, ancrés dans nos mémoires et dans la vie de chacun d'entre nous, et dans lesquels on se replonge comme dans un bain de jouvence musical.
Des années après, il était une fois, il sera une fois...
Many Years After.

*« Gure kantuak xarmant iruditzen bazaizkizu, guk idatzi ez ditugulako da! »*
Horrela aurkezten da Many Years After hirukotea. Umorez eta aldarte onaz blaitu unea dukezu hor. Baina, batez ere, musika ederreko une bat, eskualdeko taulagainak talde anitzekin ibiltzen dituzten hiru euskal musikari zaildu biltzen dituen talde honekin.
Arrats hori Hendaiako «Ostegunak herri barnean» egitarauaren barnean kokatua da eta 60-70 urteetara garamatza, poparen eta rockaren historia osatu duten talde handien revival bat eskainiko digu, haien artean Eagles, Neil Young, David Bowie, Creedence Clearwater edo The Kinks... Ahantzezinezko kantu arrakastatsuak izanikoak, gure oroimenean eta gutako bakoitzaren bizitzan errotuak eta zeinetan musikazko gaztetze bainu batean bezala berriz murgilduko garen.
Handik zenbait urtetara, bazen behin, izanen da beste behin... Many Years After.

Uztailaren 7an juillet 21:00

Halles de Gaztelu aretoa

payant ordainduz

Soirée découverte aurkikuntza gaualdia







# CHACON, GÁMEZ, JUANCO

Depuis sa création en 2001, Musikene, le Conservatoire Supérieur de Musique de Saint-Sébastien, est devenu un centre pédagogique de tout premier plan, attirant professeurs et élèves du monde entier, et s'affirmant année après année comme l'un des pôles les plus dynamiques de la musique en Europe.

Côté guitares, ce sont trois noms qui donnent à cette effervescence toute leur énergie et tout leur talent : Javier Juanco, Joaquín Chacón et José Luis Gámez. Trente-cinq années d'amitié et d'admiration mutuelle, et voici qu'ils décident enfin de croiser leur art, dans un trio inédit dont Guitaralde n'est pas peu fier d'avoir la primeur.

Le premier a baigné aussi bien dans le classique que dans le jazz, où il s'est illustré auprès des meilleurs musiciens de la péninsule, dans les festivals à travers toute l'Europe. Le deuxième est une véritable référence de la guitare jazz, qu'on a aussi bien entendue auprès de Al Foster que de Jorge Pardo ou David Liebman. Quant au troisième, qui a fait ses classes auprès d'un Metheny ou d'un Abercrombie notamment, son pedigree (albums solos, collaborations diverses, concerts internationaux...) n'a rien à envier aux deux premiers.

La réunion de ces trois musiciens de haut vol dans la nouvelle salle des Halles de Gaztelu s'annonce comme un moment très prometteur de cette édition 2022.

2001an sortu zenetik, Musikene, Donostiako Goi mailako Musika Kontserbatorioa lehen-lehen mailako pedagogia zentroa bihurtu da; mundu osoko irakasle eta ikasleak erakartzen ditu eta, urterik urte, Europako musika gune dinamikoenetako bat da.

Gitarrei dagokienean, hiru izen ditugu burbuilatze horri energia eta talentu guztia ematen diotenak: Javier Juanco, Joaquín Chacón eta José Luis Gámez. Hogeita hamar urte elkarren adiskide eta miresle, eta hor nola azkenean beren artea hirukote berri-berri batean bildu dutela; Guitaralde harro asko da haien lehen jokalekua izanik.

Lehena hala klasikoan nola jazzean aritu da, penintsulako musikari onenen ondoan eta Europa osoko festibaletan. Bigarrena jazz gitarraren egiazko erreferentzia da; Al Foster nola Jorge Pardo edota David Liebman musikarien ondoan entzun dugu. Hirugarrena, Metheny edo Abercrombie artistekin egin ditu klaseak; beste biek adineko pedigria du honek ere (bakarkako diskoak, hainbat lankidetza, nazioarteko kontzertuak...).

Maila gorako hiru musikari horiek Gaztelu areto berrian biltzeak 2022ko aldi honen garrantzi handiko unea iragartzen digu.

Uztailaren 7an juillet

Halles de Gaztelu aretoa

payant ordainduz

Soirée découverte aurkikuntza gaualdia



# MATTEO MANCUSO

L'une des fiertés de Guitaralde, c'est bien, année après année, de révéler les nouveaux talents de la guitare. Cette année, la révélation arrive tout droit de Sicile et s'appelle Matteo Mancuso.

26 ans, 10 doigts et six cordes : il n'en faut pas davantage à Matteo Mancuso pour s'affirmer comme le nouveau prodige à ne pas manquer. Passé par le conservatoire de Palerme, il y développe une technique héritée du classique voire du flamenco qui le voit, même sur une électrique, totalement ignorer le médiator. Dès son plus jeune âge, il multiplie les expériences musicales sur les scènes italiennes, en croisant rock progressif et jazz, dont il perfectionne l'étude à la prestigieuse Berklee School de Boston avant que Yamaha le soutienne et propulse sa carrière. Son trio, formé en 2020, annonce un premier album de compos pour la fin de l'année. En attendant de s'en délecter, on peut faire comme Steve Vai, Joe Bonamassa, Dweezil Zappa ou Al Di Meloa : le suivre sur sa chaîne YouTube (plus de dix millions de vues au compteur !...) où son talent explose en revisitant les standards. Mieux encore : on peut aussi se précipiter à Hendaye et venir le découvrir en ouverture de premier choix de l'édition 2022 de Guitaralde.

Guitaralderen harrotasunetako bat, urterik urte, gitarra talentu berriak ezagutzera ematea da. Aurten, ezagutu beharrekoa Siziliatik datorkigu zuzenean eta Matteo Mancuso da deitzen.

26 urte, 10 hatz eta sei soka: ez du besterik behar Matteo Mancuso-k galdu behar ez den miraragile berri gisa agertzeko. Palermoko kontserbatorioan ikasi eta klasikotik edota flamenkotik hartu teknika garatzen du, gitarra elektriko batean ere plektroa guztiz bazter utziz. Gazte-gaztetik hasi zen Italiako taulagaineetan musika esperientziak egiten, rock progresiboa eta jazza elkar gurutzatuz, eta gero, Bostoneko Berklee School ospetsuan osatu zituen ikasketa horiek; gero Yamaha-k har eta karrera bultzatu zion. 2020an osatu hirukoteak urte hondarrerako iragarri du lehen compo diskoa. Harekin atsegina hartzeko zain garen artean, Steve Vai, Joe Bonamassa, Dweezil Zappa edo Al Di Meloa artistek bezala egin dezakegu: haren YouTube katean jarraitu (hamar milioitik gora ikuspen kontagailuan!...) non haren talentua lehertzen baita pieza estandarren arramoldatuz.

Oraindik ere hobe: Hendaiara jauzi egin eta Guitaralde 2022ko lehen hautuaren irekitze ekitaldian ezagutzera etor zaitezke.

YAMAHA

openema
l'informatique autrement

Informatique
•
Professionnels - Particuliers

Installation - Vente
•
Dépannage

Rue de l'industrie, Bat bidasoa, lot N°10 Professionnels : 05 29 52 70 90 Particuliers : 05 59 24 24 84

Camping ★★★★ Ametza
Domaine de ★★★★ Seres
Le camping, une histoire de familles...






*Leader européen des solutions d'assises*
Sokoa

**Enplegu sortzailea Euskal Herrian**

Créateur d'emplois au Pays basque.

Assurances, placements, retraite pour Professionnels, Entreprises, Particuliers

**Aurélia LASSALLE**
Agent général Gan Assurances
Agence d'Hendaye
Tél. 05 59 20 60 75 - hendaye@gan.fr
Orias N° 13 005 382 - www.orias.fr

gan ASSURANCES

**Gan Assurances** - Compagnie française d'assurances et de réassurances - S.A. au capital de 193 107 400 euros - RCS Paris 542 063 797 - APE : 6512Z - Siège social : 8-10, rue d'Astorg - 75008 Paris - Tél. : 01 70 94 20 00 - www.gan.fr. Direction Réclamations Clients - Gan Assurances - 3 place Marcel Paul - 92024 Nanterre Email : reclamation@gan.fr • Entreprise régie par le Code des assurances.
Aurélia Lassalle, Agent général Gan Assurances immatriculée à l'Orias sous le numéro 13 005 382 - www.orias.fr • Popcom 09 50 74 78 02

AMETZONDO SHOPPING

— FOR JU —
MALA GISSONA
CRAFT BEER

DATXA

Uztailaren 8an juillet 19:00

Chapelle château Abbadia

payant ordainduz

Concert classique kontzertu klasikoa



# JUNE AGIRRE

Guitaralde 2022 est heureux d'entamer un partenariat avec Musikene, le prestigieux Conservatoire Supérieur de Musique de Saint-Sébastien, qui s'avère année après année le vivier incontournable des jeunes musiciens classiques et jazz. C'est dans ce cadre que le festival a le plaisir d'accueillir June Agirre, une jeune guitariste classique basque, dont le nom commence à percer dans la génération des nouveaux concertistes.
Après des études au Conservatoire Jesús Guridi de Vitoria, elle obtient le Premier Prix du concours des Jeunes Musiciens d'Euskadi en 2019, et poursuit actuellement ses études en troisième année au niveau Supérieur dans la classe de Marco Socías, à Musikene, avant de présenter son Prix l'an prochain, qu'on lui devine brillant et à la mesure de son talent.
June Agirre s'illustre déjà dans quelques concerts en soliste ou en musique de chambre, à travers le Pays basque ainsi que dans plusieurs festivals en Espagne (Alicante, Madrid…), tout en continuant de parfaire son jeu lors de prestigieux masterclasses avec David Russell, Álex Garrobé, Aniello Desiderio ou Zoran Dukic notamment.
Un récital dont le programme détaillé sera annoncé quelques jours avant sur les réseaux puis distribué à l'entrée, dans la tradition des concerts classiques, et qui trouvera dans la magnifique chapelle du château d'Abbadia un splendide écrin pour un moment intime et rare : les spectateurs auront en effet le privilège d'y être conduits en petit train depuis la ville, profitant ainsi des joies d'une balade au cœur d'Hendaye en préambule au concert de June Agirre.
Possiblité de venir en petit train (gratuit avec le billet du concert) depuis le fronton Gaztelu Zahar (parking gratuit) jusqu'au Château Abbadia

Guitaralde 2022 pozarren ekin dio Musikenerekin partzuergo batez lotzeari; Donostiako Goi mailako Musika Kontserbatorioa, urterik urte ageri baita musika klasikoko eta jazz musikako musikari gazteen hazleku bazterrezin gisa. Partzuergo horren harira hartuko du festibalak June Agirre gitarra klasikoaren euskal jole gaztea, zeinaren izena hasia baita kontzertu emaile berrien belaunaldian agertzen.
Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioan ikasi ondoren, 2019n, Euskadiko Musikari Gazteen lehiaketaren lehen saria irabazi zuen, eta orain Musikenen ari da, Marco Socias-en ikasgelan goi mailako hirugarren urteko ikasketak egiten, heldu den urtean bere saria aurkeztu aitzin, distiratsu eta duen talentuaren neurrian izanen dena eiki.
June Agirre zenbait kontzertu ematen ari da jadanik, bakarka edo ganbara musikan, hala Euskal Herrian zehar nola Espainiako hainbat festibaletan (Alacant, Madrid…), betiere bere jokoa masterklase ospetsuen bidez osatuz honako hauekin: David Russell, Álex Garrobé, Aniello Desiderio edo Zoran Dukic musikariekin besteak beste.
Egitarau zehatza egun zenbait lehenago sareetan iragarri eta gero, kontzertu klasikoen tradizioari jarraikiz, sartzean banatuko den errezital horrek Abadia gazteluko kapera eder-ederrean une intimo berezia eskainiko digu: ikusleek herritik tren txikian eramanak izateko abantaila ukanen dute; June Agirreren kontzertuari ekin aitzin, Hendaian ibilaldi goxo bat bizi ahalko dute horrela.

Uztailaren 8an juillet 21:00

Fronton Gaztelu Zahar pilota plaza

payant ordainduz

Soirée All Stars gaualdia



# HYLEEN

Soul, funk, jazz et pop : la musique de Hyleen est un condensé de ce que chacune de ses influences a de meilleur. Après quelques années en musicologie à la Sorbonne, où elle tient la guitare dans le Big Band, elle poursuit son apprentissage au Conservatoire de Paris, en Musiques Actuelles. Chanteuse et guitariste, elle est aussi autrice et compositrice de ses propres titres, et compte déjà deux albums à son actif, où l'on peut entendre des participations aussi illustres que celle des batteurs Chris Dave (Adele, Erikha Badu...) ou Nicolas Viccaro, que les habitués de Guitaralde connaissent bien. Femme de scène, elle se produit dans de nombreux concerts un peu partout en France et dans le monde (USA, Japon, Inde...).
*« Je pense qu'en chacun de nous sommeille un autre Moi, une petite voix qui par moment peine à s'exprimer. Une facette cachée qui peut se révéler discrète ou prononcée. Dans cet album j'ai voulu dépeindre mon autre Moi, ma face B. »* C'est ainsi qu'elle présente elle-même son dernier opus, un voyage musical tout en émotions, qui ravira sans aucun doute toutes les faces du public de Guitaralde.

Soul, funk, jazz eta pop: Hyleen-en musika ukan dituen eraginetako bakoitzak duen onenaren bilduma da. Zenbait urte Sorbonan musikologia ikasten eta Big band delakoan gitarra jotzen eman ondoren, Pariseko kontserbatorioan Egungo Musikak ikasten jarraitu zuen. Abeslari eta gitarrajolea, bai eta bere piezen hitzen eta musikaren egilea da eta jadanik bi disko grabatu ditu, zeinetan Guitaralde festibalaren ohiko ikusleek ongi ezagutzen dituzten Chris Dave (Adele, Erikha Badu...) edo Nicolas Viccaro bateriajoleen partaidetza ospetsuak entzun baitaitezke. Taulagaineko emaztea, kontzertu anitzetan aritzen da Frantzia osoan zehar eta munduan (USA, Japonia, India...).
*« Uste dut gutako bakoitzean badela beste Ni bat erdi lo, batzuetan adierazia izateko zailtasunak dituen ahots txiki bat. Diskretuki edo nabarmenki ager litekeen alderdi ezkutu bat. Disko honetan nire beste Nia, nire B aldea, itxuratu nahi ukan dut »* Horrela aurkezten du berak bere azken lana, emozioz beteriko musika bidaia, Guitaraldeko ikusleen alde guztiak liluratuko dituena, zalantzarik batere gabe.

Uztailaren 8an juillet

Fronton Gaztelu Zahar pilota plaza

payant ordainduz

Soirée All Stars gaualdia



# MIKE STERN BAND

Cette fois, c'est sûr, c'est la bonne. Après les fausses joies qui ont contraint le festival à annuler, in extremis, sa participation aux deux éditions précédentes, pour des raisons totalement indépendantes de notre volonté comme de la sienne, quelle joie, quel honneur pour Guitaralde, d'accueillir enfin l'immense Mike Stern !

Raconter sa vie, c'est raconter l'un des pans les plus prestigieux de l'histoire du jazz. Recommandé à 22 ans à peine par Pat Metheny qui le remarque à Berklee, il intègre le groupe Blood, Sweat and Tears, puis rejoint Billy Cobham. C'est lui que Miles Davis choisit en 1981 pour son grand retour, après plusieurs années passées à se battre contre d'autres démons que la trompette. Il devient vite le guitariste incontournable de la scène fusion (Jaco Pastorius, les frères Brecker, Steps Ahead, Yellowjackets...), tout en entamant une carrière solo qui lui vaut les plus grandes distinctions critiques internationales, entouré de la fine fleur des instrumentistes (Elvin Jones, Peter Erskine, Dennis Chambers, Dave Weckl, Bob Berg...).

Son style iconoclaste s'impose, dans les années 80, en cassant les codes. Mélanger les influences rock et jazz ? C'était donc possible ?... On allait voir ce qu'on allait entendre ! Mike Stern n'a que faire des genres, et invente son propre cocktail. Lyrique à la manière d'un Sonny Rollins jeté dans le shaker du Jimy Hendrix de sa jeunesse, servi frappé par l'avant-garde d'un Coltrane, il ouvre la voie à des générations de guitaristes après lui, qui ne joueront plus jamais pareil.

Il se présentera, à Hendaye, entouré d'une formation « all stars », avec notamment Leni Stern, sa femme, au chant, qui lui donne aussi une réplique millésimée à la guitare, et l'immense Dennis Chambers à la batterie.

On croit rêver. On ne rêve pas. Ou alors le rêve s'appelle Guitaralde !

Oraingoan bai, segur da. Aitzineko bi urteeetan Mike Stern-en parte hartzea, gure eta haren borondateetatik at ziren arrazoiengatik, azken unean bertan behera uztera behartu gaituzten makurren ondoren, oraingoan bai, a zein pozgarri eta zein ohore handi den Guitaraldearentzat, azkenik Mike Stern handia hartzea!

Haren bizitza kontatzea jazzaren historiaren zati prestigiozkoenetako bat kontatzea da. 22 urte eskas zituen Pat Metheny-k Berklee-n ezagutu eta gomendaturik, Blood, Sweat and Tears taldera sartu zenean; gero, Billy Cobham-ekin lotu zen. Bera hautatu zuen Miles Davis-ek 1981ean bere itzultze handirako, hainbat urte turutaz beste deabrurekin borrokan eman ondoren. Laster, fusion eszenaren ezinbesteko gitarrajolea bilakatu zen (Jaco Pastorius, Brecker anaiak, Steps Ahead, Yellowjackets...), eta, aldi berean, bakarkako karrerari ekin zion, zeinean nazioarteko kritika sari handienak eskuratu baitzituen, tresnajole hoberenetan hoberenez inguraturik (Elvin Jones, Peter Erskine, Dennis Chambers, Dave Weckl, Bob Berg...).

Haren estilo ikonoklastak gaina hartu zuen 80. urteetan, kodeak hautsiz. Rock eta jazz eraginak nahastekatzea? Egin ote zitekeen?... Ikusiko genuen, bai, eta entzun, entzunen genuena! Mike Stern ez da generoekin kezkatzen eta bere koktel berea asmatzen du. Lirikoa, Sonny Rollins baten gisara, bere gazte denborako Jimy Hendrix-en shaker delakoan jalgia eta Coltrane baten abangoardiaz jorik zerbitzaturik, gero etorriko diren eta harrezkero inoiz berdin joko ez duten gitarrajole belaunaldiei bidea irekitzen die.

Hendaian, «all stars» talde batez inguraturik aurkeztuko zaigu, besteak beste, Leni Stern bere emaztea duela kantari bai eta gitarran ere ihardespena eginen diona, eta Dennis Chambers handia baterian.

Ametsetan bezala gara. Baina ez gara ametsetan. Edo ametsa Guitaralde deitzen da!



france bleu pays basque

tvpi

YAMAHA

DV MARK

GUITARE XTREME

Markbass

ACTION JAZZ

fnac.com

SAVAREZ

Uztailaren 9an juillet 19:00

Terrasse relais Thalasso terraza

gratuit urririk



# JM ECAY TRIO

Infatigable chef d'orchestre du festival, Jean-Marie Ecay ne serait pas le musicien hors-pair que l'on connaît sans son insatiable curiosité et son envie permanente de nouvelles expériences musicales. Le projet qu'il présente cette année à Guitaralde est un trio inédit, dans lequel il s'est entouré de deux instrumentistes de choix. À la contrebasse, Stéphane Kerecki, musicien prolifique et très prisé notamment dans la mouvance du jazz moderne (Daniel Humair, Yaron Herman, Anne Paceo…), et à la batterie, Fabrice Moreau, qu'on entend aussi bien dans la chanson pop-rock (Aubert, Arthur H...) que dans le jazz (Michel Portal, Rémi Vignolo, Bojan Z..).
Ce trio permet à Jean-Marie Ecay d'explorer une nouvelle dimension musicale, qui allie inventivité et improvisation jazz à ses influences blues et rock, grâce à un système de frettage révolutionnaire dont il est l'ambassadeur : le « Ace Tone System ». Cette technique de frettage, qui va faire parler d'elle dans les prochaines années, donne à la vibration des cordes une justesse incomparable, et impossible à obtenir avec un frettage traditionnel. L'alignement parfait des fréquences ouvre un nouveau champ des possibles et dote le groupe entier d'une sonorité absolument idéale, qui ravira le grand public comme les mélomanes les plus avertis. Il arrive que les fréquences s'alignent comme les planètes, et c'est alors, avec le Jean-Marie Ecay Trio, tout le festival qui est à la parade.

Festibalaren orkestraburu nekaezina, Jean-Marie Ecay ez litzateke eagutzen dugun paregabeko musikaria izanen duen jakinmin asegabea eta musika esperientzia berrien etengabeko gutizia ez balitu. Aurten Guitaralden aurkezten duen proposamena inoiz ikusi gabeko hirukotea da, zeinean bi tresnajole hauta baititu ondoan. Kontrabaxuan, Stéphane Kerecki musikari emankorra eta oso prezatua, batez ere jazz modernoaren ingurunean (Daniel Humair, Yaron Herman, Anne Paceo...), eta baterian, Fabrice Moreau, hala pop-rock kantuan (Aubert, Arthur H...) nola jazzean (Michel Portal, Rémi Vignolo, Bojan Z...) entzun litekeena.
Hirukote horrek musikazko dimentsio berria esploratzeko aukera ematen dio Jean-Marie Ecay-ri, asmamena eta jazz inprobisazioa bere blues eta rock eraginekin elkartzen dituena, koska jotze sistema iraultzaile bati esker, zeinaren enbaxadorea baita: «Ace Tone System» delakoa. Kosken jotze teknika horrek zer erran emanen du heldu diren urteotan; koska jotze tradizionalaren bidez lortu ezina den paregabeko zuzentasuna ematen dio horrek soken bibrazioari. Frekuentzien lerrokatze beteginak egin litezkeenen alor berria irekitzen du eta jende arruntak nola musikazale ohartuenak liluratuko dituen ozentasun guztiz ideala ematen dio talde osoari. Frekuentziak planetak bezala lerrokatzen direla gertatzen da, eta orduan, Jean-Marie Ecay Hirukotearekin, festibal osoa da erakustaldian.

Uztailaren 9an juillet

Terrasse relais Thalasso terraza

gratuit urririk



# JAC

Dès son enfance à Valence puis à Saint-Jacques-de-Compostelle, Jaime Alvarellos Correcher, dit JAC, baigne dans l'univers de la musique avec un père guitariste qui lui fait écouter les Hendrix, Clapton, Springsteen ou Peter Gabriel. Jouer comme papa : existe-t-il un plus beau tremplin ? Jaime apprend, monte des groupes, commence à faire parler de lui dans les festivals de Galice, tombe dans le jazz. En 2004, il vient parfaire sa formation à Musikene, à San Sebastián, dont il sort diplômé quatre ans plus tard. S'ouvre alors pour lui une intense phase de concerts, de groupes divers et d'enregistrements à travers toute l'Espagne. JAC expérimente toutes les formules autour de la guitare, du solo au quatuor qu'il forme à partir de 2018 avec Batiz, Iban Larreboure et Xabier Barrenetxe. C'est avec ce quatuor qu'il enregistre fin 2020 l'album « RAW », un album de « blues rural » acoustique, enraciné et engagé. Un blues qu'il porte chevillé au corps, et qui rend hommage aux grands classiques dans la plus pure tradition du Delta du Missisipi.

Bere haurtzaroan, Valentzian hasieran eta Santiago de Compostelan gero, Jaime Alvarellos Correcher, JAC ezizenez ezaguna, musikaren unibertsoan blaiturik izan zen, gitarrajolea zen aitak Hendrix, Clapton, Springsteen edo Peter Gabriel entzunarazten dizkiolarik. Aitak bezala jotzea: ba ote da jauzi-ohol hoberik? Jaime-k ikasi egiten du, taldeak osatzen ditu, Galiziako festibaletan berataz mintza zedin lortu zuen eta jazzean hasi zen. 2004. urtean, Musikenera etorri zen, Donostiara, bere formakuntza osatzera, eta handik lau urtera, diplomarekin jalgi zen. Orduan, Espainia osoan zehar kontzertuen, hainbat talderen eta grabaketen garaia hasi zitzaion. JAC gitarraren inguruko formula guztietan aritzen da, hala bakarrekoan, nola, 2018. urteaz geroztik, Batiz, Iban Larreboure eta Xabier Barrenetxearekin osatzen duen laukotean. Laukote horrekin grabatu zuen, 2020ko amaieran, «RAW» diskoa, «baserrialdeko blues» akustiko, errotu eta engaiatuko diskoa. Gorputzera estekaturik daraman blues musika, klasiko handiei omen eginez Missisippi Deltako tradizio garbienean.

Uztailaren 9an juillet 21:00

Fronton Gaztelu Zahar pilota plaza

payant ordainduz

Soirée pop rock gaualdia



# GARI
## SOLO «UNPLUGGED»

De Bayonne à Bilbao, d'Hendaye à Lekeitio, de Saint-Jean-Pied-de-Port à Vitoria, d'Itxassou à Zugarramurdi, en passant par Bera, Pasaia, Iholdy ou Mauléon, qui ne s'est jamais retrouvé les larmes aux yeux au moins une fois depuis 1990, en pleine « confession », en train de hurler un samedi soir avec lui son mythique « Aitormena » ?
Avec le groupe Hertzainak, Gari a atteint les sommets du rock basque puis, après la dissolution du groupe, a entamé une carrière solo ponctuée de nombreux albums loin des modes radicales, et toujours marqués par l'ouverture : au jazz, au voyage, à la langue espagnole qu'il avait longtemps refusée, à la poésie (Jon Maia, Bernardo Atxaga...).
Des albums riches, inspirés, personnels et sensibles, qui jalonnent le parcours d'un homme en mouvement permanent, comme en témoigne son dernier disque, enregistré avec son comparse Maldanbera.
Sur scène, sa voix pleine encore des rocailles punk de sa jeunesse fait mouche, sur des titres aux arrangements subtils et aux guitares raffinées. À Hendaye, Gari se présentera seul, en une formule « unplugged » guitare-voix qui déshabille l'émotion jusqu'à la mettre à nu.
A découvrir, ou redécouvrir, comme l'une des très belles surprises de cette édition 2022.

Baionatik Bilbora, Hendaiatik Lekeitiora, Donibane Garazitik Gasteizera, Itsasutik Zugarramurdira, Bera, Pasaia, Iholdi edota Maulen barne, nor ez da, inoiz begiak malkotan topatu, 1990az geroztik, gutxienik aldi batez, «aitormen» betean, larunbat gau batez, harekin batera, haren «Aitormena» mitikoa oihuka?
Hertzainak taldearekin, Garik euskal rockaren gailurrak jo zituen eta gero, taldea desegitean, bakarkako karrerari ekin zion, moda erradikaletatik urrun diren diskoak tarteka grabatuz; disko irekiak: jazzera, bidaietara, luzaz uko egin zion espainol hizkuntzara, poesiara zabaldurik (Jon Maia, Bernardo Atxaga…). Disko joriak, goiargiak, pertsonalak eta sentikorrak, etengabeko mugimenduan den norbaiten ibilbidea markatzen dutenak; horren adierazle dugu haren azken diskoa, Maldanbera bere konpartsarekin grabatua.
Taulagainean, Gariren ahots oraindik ere gaztaroko punk legarrez beterikoak erdiz erdi kausitzen du, moldaketa sotilez eta gitarra finez landuriko tituluetan. Hendaian, Gari bakarrik aurkeztuko da, gitarra-ahots unplugged formula batez, emozioa biluztu eta bipil uzten duen formula batez.
Ezagutu beharrekoa edo berriz dastatzekoa, 2022ko edizio honen ezusteko eder-ederretako bat baita.

Uztailaren 9an juillet

Fronton Gaztelu Zahar pilota plaza

payant ordainduz

Soirée pop rock gaualdia



# VIRNA NOVA
## QUARTET

Au milieu des Ida Nielsen, Sheila E, Hannah Ford ou encore Donna Grantis, Virna Nova ne dépareillerait pas.
Et à l'entendre jouer, à la voir jouer, on la croirait directement sortie d'un nouveau combo posthume de Prince en personne.
« Sexy mother funker » : Virna Nova est une guitariste et chanteuse multifacettes.
1er Prix du CNSM en guitare classique, elle encanaille le grand répertoire en croisant les routes du jazz et du funk qui l'ouvrent à de nouveaux sons, de nouvelles influences, de nouvelles rencontres. On la retrouve au Brésil, dans le chaudron océanique des bossas, des sambas, et des rythmes gorgés de cachaça. Auprès de Wyclef Jean, de Salik Keita, de Richard Bona, sa guitare fait merveille et tout naturellement, cette jeune étoile de la guitare explose en un premier album intitulé « Supernova ». Vocales, ses cordes sensibles sont aussi des fouets qui font claquer les langues anglaise, française et portugaise, pour raconter ses voyages musicaux.
Il était grand temps que sa route passe par Hendaye, et que cette super Nova y fasse enfin briller toute sa constellation de chansons, pour clôturer une soirée riche en contrastes et en découvertes, où tous les amateurs de musique trouveront leur bonheur.

Ida Nielsen, Sheila E, Hannah Ford edota Donna Grantis musikarien artean, Virna Nova ongi litzateke. Eta jotzen entzuten dugunean, ikusten dugunean, Prince beraren hilondoko combo berri batetik zuzenean jalgi dela erranen genuke. «Sexy mother funker»: Virna Nova alderdi anitzeko gitarra jole eta abeslaria da.
CNSM kontserbatorioaren lehenengo sariduna gitarra klasikoan, erreportorio nagusia zitaltzen du jazzaren eta funkaren bideekin gurutzatuz, soinu berrietarako bidea, eragin berrietarako bidea, topaketa berrietarako bidea irekitzen baitiote. Brasilen topatzen dugu, bossa novaren, sanbaren eta cachaça edariz blaitu erritmoen pertze ozeanikoan. Wyclef Jean, Salik Keita eta Richard Bona musikarien ondoan, haren gitarrak mirariak egiten ditu eta, berez-berez, gitarraren izar gazte hori «Supernova» izeneko disko batean lehertzen da. Ahots korda sentikorrak zaharoak dira ere, ingeles, frantses eta portuges hizkuntzak klaskarazten dituztenak bere musika bidaien kontatzeko.
Bazen garaia haren bidean Hendaia kokatzeko eta super Nova horrek bere kantu konstelazio guztia bertan dirdiraraz dezan, musikazaleak zorionean jarriko dituen kontrastez eta lehen ezagutzaz aberats den arratsari amaiera emanez.

Uztailaren 9an juillet

Fronton Gaztelu Zahar pilota plaza

payant ordainduz

Soirée pop rock gaualdia



# PATRICK RONDAT QUARTET

Un Rondat, des rondos ?... Presque.
Car ce drôle d'énergumène qu'est Patrick Rondat a l'art des mariages musicaux inédits. Dans la veine d'un Joe Satriani ou d'un Yngwie Malmsteen, il jette des ponts sonores entre le métal, le classique, le prog, le jazz et la musique électronique, sans se soucier des querelles de chapelles. Et au final, le cocktail détone.
Sa virtuosité technique, inspirée d'un Al Di Meola qui aurait fait ses classes chez Vivaldi puis serait passé à la moulinette du hard-rock, n'y est sans doute pas pour rien. Elle éclate dans les nombreux albums solos qu'il a enregistrés, comme dans les multiples collaborations qui ont jalonné sa carrière de guitariste (Gary Moore, Steve Lukather, Michel Petrucciani, Didier Lockwood...), dont un certain Jean-Michel Jarre qu'il accompagne régulièrement sur scène depuis plus de trente ans. Infatigable expérimentateur, inlassable innovateur dans le croisement des genres et le décloisonnement des musiques, Patrick Rondat est aussi un passeur de guitare, à travers de nombreuses activités pédagogiques (vidéos, master classes, stages...) dans lesquelles il enseigne en particulier sa technique originale de l'aller-retour au médiator.
Un concert chevelu bien comme il faut, et qui va assurément décoiffer.

Rondat bat, rondoak?... Ia-ia.
Zeren Patrick Rondat burubero xelebre horrek inoiz ikusi gabeko musika uztartzeak egiteko artea baitu. Joe Satriani edo Yngwie Malmsteen musikarien hats berean, soinu zubiak eraikitzen ditu metalaren, klasikoaren, progaren, jazzaren eta musika elektronikoaren artean, batere kapera eztabaiden axolarik gabe. Eta azkenean, koktelak lehertzen du.
Duen birtuosotasun teknikoa ikasketak Vivaldirekin egin eta gero hard-rockaren xehagailura pasatu zen Al Di Meola-ren eragina da eta badu bere garrantzia, noski. Bakarka grabatu dituen disko anitzetan eta bere gitarrajole karreran ukan dituen lankidetza anitzetan (Gary Moore, Steve Lukather, Michel Petrucciani, Didier Lockwood...); haien artean, Jean-Michel Jarre laguntzen du erregularki taulagainean, orain dela hogeita hamar urte baino gehiagotik hona.
Esperimentuzale nekaezina, berritzaile akiezina generoen gurutzaketan eta musiken arteko trenkaden haustean, Patrick Rondat gitarra pasatzailea da ere, pedagogia jardun hainbaten bidez (bideoak, masterklaseak, egonaldiak…), zeinetan plektroaren bidezko joan-jinaren berezko teknika irakasten baitu.
Bilodun kontzertua, behar den bezalakoa eta biloak harrotuko dizkiguna.

Intermarché SUPER
HENDAYE

ENTREPRISE DE MAÇONNERIE
BERTIERE Fabrice
TÉL/ 06 12 25 56 62

PEUGEOT
VOTRE CONCESSION PEUGEOT
Urrugne - Abcis by autosphere
05.59.47.68.68 - www.peugeot-urrugne.fr

CAFÉ VINS BIÈRES SPIRITUEUX
LARZABAL L.S.O.
distribution & services
ZI Les Pontots - chemin des Barthes - 64100 BAYONNE
larzabal-lso@wanadoo.fr .05 59 57 10 10 - Fax :.05 59 52 31 57

EGUIAZABAL
Depuis 1923
Hendaye Pays-Basque
Cave et Bar à vin
Maison Eguiazabal - 3, Rue de Béhobie 64700 Hendaye
05 59 48 20 10 - www.eguiazabal.com

# PROGRAMME OFF EGITARAUA

Après 2 ans de pandémie, le OFF organisé par l'association Guitaralde et ses partenaires revient !
2 urteko pandemiaren ondoren, Guitaralde elkarteak antolatu OFF saila eta haren partzuerrak berriz hemen ditugu!

## 7 juillet Uztailaren 7an

Guitar After (22h30)
**HONKY TONKY** (Rock funk)
**@ Bakarxoko**



## 8 juillet Uztailaren 8an




Guitar Apéro (19h)
**WOK NOTE** (Jazz blues)
**@ Café de la Plage**

Guitar Apéro (19h)
**TNGRI** (Post rock)
**@ Sokoburu**





Guitar After (22h30)
**THE STAMPERS** (Blues)
**@ Apostrophe**

## 9 juillet Uztailaren 9an

Guitar Apéro (19h)
**BOOM DITTY** (Bluegrass)
**@ Camping Ametza**





Guitar Apéro (20h)
**SELENITE** (Rock acoustique)
**@ Borderline Fabrika**

*Tous les concerts du OFF sont gratuits et soutenus par les partenaires suivants :*
*OFF saileko kontzertu guztiak urririk dira eta honako partzuer hauek dituzte sostengatzen:*

BAKARXOKO BAR - RESTAURANT - TAPAS

CAFÉ HENDAYE DE LA PLAGE

L'APOSTrophe Cuisine & Comptoir

Camping Ametza – Domaine de Seres – Le camping, une histoire de familles...

## MASTER CLASS

**Samedi 9 juillet** (10h-13h)
**@ Auditorium Antoine d'Abbadie**
*Tarif : 25 € (règlement auprès de l'association Guitaralde)*
Le Festival Guitaralde est très heureux d'accueillir une master class avec l'incontournable **NeoGeofanatic** : un guitariste rock, virtuose, youtubeur qui draine pas moins de 217 000 abonnés.

**Uztailaren 9an (larunbata)** (10:00-13:00)
**@ Antoine d'Abbadie entzunaretoan**
*Prezioa: 25 € (ordainketa Guitaralde elkarteari)*
Guitaralde Festibalak oso pozik hartuko du master class bat Youtube-n 217 000 jarraitzaile dituen **NeoGeofanatic** rock gitarrista birtuosoarekin.

Borderline Fabrika

# Infos pratiques / Xehetasun praktikoak

**Achat des billets et abonnement à l'Espace culturel Mendi Zolan** 119 bd de la mer à Hendaye
**Txartelak eta harpidetzak salgai Mendi Zolan kulturgunean** Itsas etorbidea, 119 - Hendaia
Vente en ligne sur / Lineako salmenta: www.guitaralde.fr • www.hendaye-culture.fr • FNAC

## TARIFS DES CONCERTS / KONTZERTUEN PREZIOAK

**Concert aux Halles de Gaztelu le 7 juillet et concerts au fronton Gaztelu Zahar les 8 et 9 juillet :**

- Préventes au tarif plein de 25€
- Ventes sur place au tarif plein de 28€
- Tarif réduit unique (préventes et ventes sur place) : 17€ (abonnés, intermittents du spectacle, étudiants, demandeurs d'emploi, bénéficiaires des minima-sociaux groupe de plus de 10 personnes, membres du GPVH). Sur présentation d'une pièce justificative.
- Tarif CE : 20€ (comités d'entreprise, membres de l'association Guitaralde sur présentation d'une pièce justificative)
- Tarif 10-18 ans : 12€
- Tarif 0-9 ans : **Gratuit**

**Concert du 8 juillet au château d'Abbadia**, avec ou sans le petit train touristique (train de Gaztelu Zahar jusqu'au château (A/R)

- Tarif unique : 15€

**Pass 3 jours :** pour le concert aux Halles de Gaztelu et les 2 concerts du fronton (uniquement en prévente)

- Tarif unique : 60€

*Achats à Mendi Zolan et en ligne sur le site **www.hendaye-culture.fr** (commission de + 0.50€ pour l'achat en ligne). Tout billet vendu ne pourra être ni repris, ni échangé, même dans le cas où le billet n'aurait pas été utilisé par le spectateur. Le remboursement ou l'échange n'a lieu qu'en cas d'annulation du concert.*

**Uztailaren 7ko kontzertua Gaztelu Aretoan eta uztailaren 8 eta 9ko kontzertuak Gaztelu Zahar pilotalekuan:**

- Aitzin-salmentak: prezio osoa 25€
- Bertako salmentak: prezio osoa 28€
- Prezio murriztu bakarra (aitzin-salmentak eta bertakoak): 17€ (harpidedunak, ikuskizunetako intermitenteak, ikasleak, langabetuak, minimo sozialak, 10 pertsonatik gorako taldeak, GPVH-eko kideak. Froga dokumentua erakutsiz.)
- Enpresa komiteen prezioa: 20€ (enpresa komiteak, Guitaralde elkartearen kideak froga dokumentua erakutsiz).
- 10-18 urtekoentzako prezioa: 12€
- 0-9 urtekoentzako prezioa: **Dohainik**

**Uztailaren 8ko kontzertua Abadia gazteluan,** Gaztelu Zaharretik gaztelurako tren turistikozko bidaiarekin (joan-itzulia) edo gabe

- Prezio bakarra: 15€

**3 egunetako pasea:** Gaztelu Aretoko kontzerturako eta pilotalekuko 2 kontzertuetarako (aitzin- salmentan bakarrik)

- Prezio bakarra: 60€

*Erreserbak Mendi Zolan kulturgunean eta **www.hendaye-culture.fr** webgunean (+0.50€ko komisioa linean erostean). Saldu den txartelik ez da berriz hartuko, ez aldatuko, ikusleak erabili ez badu ere. Dirua itzultzea edo txartela aldatzea ikuskizuna bertan behera uzten bada eginen da soilik.*

*En cas d'intempéries, les concerts prévus au fronton Gaztelu Zahar seront assurés au fronton couvert Daniel Ugarte / Belcenia.*
*Eguraldi txarra balitz, Gaztelu Zahar frontoian aurreikusiak diren kontzertuak Daniel Ugarte / Beltzenia pilotaleku estalian iraganen dira.*

**Renseignements / Argibideak: mendizolan@hendaye.com - tel. 05 59 48 30 49**

**BUVETTE ET RESTAURATION SUR PLACE ASSUREES PAR L'ASSOCIATION LANETIK EGINA**
**OSTATUA ETA JANARIA LANETIK EGINA ELKARTEAREN ESKUTIK**


LANETIK EGINA

Nouveau Berria
Paiement possible en eusko -z ordaintzeko aukera

Billetterie et bar Fronton
Txarteldegia eta pilota plazaren ostatua

pass Culture

Depuis le début de l'année 2022, le dispositif Pass Culture est disponible à Hendaye pour tous les jeunes âgés de 15 à 18 ans. Pour plus d'information rendez-vous sur : **www.pass.culture.fr**

2022. urtea hasi denetik, Kultur Pasea eskura dezakete Hendaiako 15 eta 18 urte arteko gazteek. Informazio gehiagorako, webgune hau ikus : **www.pass.culture.fr**


**Carte adhérent GUITARALDE (20€) disponible sur demande pour bénéficier de réduction et d'invitation à la soirée VIP**
**GUITARALDE kide txartela (20€) eska dezakezue, VIP gaualdirako gonbidapena eta prezio murriztuak ukaiteko.**

*Toutes les présentations d'artistes ont été rédigées sous la plume de Frédéric ARIBIT, écrivain et président de l'Association Guitaralde.*
*Artisten aurkezpen guztiak Frédéric ARIBIT idazleak eta Guitaralde elkartearen Lehendakariak idatzi ditu.*
*L'association GUITARALDE remercie ses partenaires ainsi que les bénévoles et les différents services de la ville pour leur soutien fidèle.*
*GUITARALDE elkarteak eskerrak eman nahi dizkie kide guztiei emandako laguntza leialagatik.*

**www.guitaralde.fr**


ABONNEZ-VOUS ! HARPIDETU ZAITEZ !

11 €

LA CARTE D'ABONNEMENT POUR LA SAISON CULTURELLE HENDAYAISE
HENDAIAKO KULTURA SASOIRAKO ABONAMENDU TXARTELA




**RENSEIGNEMENTS ET ACHATS :**
ESPACE CULTUREL MENDI ZOLAN

**INFORMAZIOA ETA SALMENTA :**
MENDI ZOLAN KULTURGUNEAN

**0 (0 33) 5 59 48 30 49**

> Avec cette CARTE profitez des tarifs réduits, **en deux spectacles seulement son coût est amorti !**
> TXARTEL horrekin, tarifa murriztuak zenituzke eta **bi ikuskizun aski litzaizkizuke haren kostua berdintzeko!**







MENUISERIE ENTSIA